



PR®-BI 174

Nabarniz

Mendi-ibilbidea Illuntzarreko larreetan eta Nabarnizko auzoetan barrena; baserriak oraindik bere esentziari eusten dio bertan, eta Arrolako *Oppiduma* ikusteko aukera ere izango du.

Urdaibaiko Biosferako Erreserbaren benetako talaia da Illuntzar mendia. Tontorraren aldameneko larreetatik gure eskualdeko askotariko paisaia aberatsa ikus dezakegu, bestek beste mendiko larreak, Ereño, Nabarniz eta Aulesti auzoen arteko goi-bailaretako landazabal atlantikoa, Ereñozar mendiko artadi kantauriarra, Omako harana, Muruetako, Busturiako eta Gautegiz-Arteagako padurak eta Okaren arroa mugatzen duten mendiak.

Mendiko bidezidor horretatik Illuntzarreko tontorrera iritsi gaitzke Elexaldeko erdigunetik abiatuta. Merika auzotik pista zabal bat abiatzen da, eta poliki-poliki egiten du gora tontorraren oinetaraino, gure lurraldeko ikuspegi ederrenetako batez gozatzeko parada. Tontorretik behera, iparralderantz, mendilarrak aurkituko ditugu, behi, ardi eta zaldien bazkalekua. Leize ugari daude eremu horretan, 330 m-ko sakonera duen Ineritze adibidez.

illuntzar, urdaibaiko begiratokia

10,5 Km - 3 ordu 30'

Fitxa teknikoa

- Ibilbidearen hasiera/amaiara: Elexalde-Nabarniz
- Ibilbidearen luzera: 10,5 km
- Gehienezko malda: 420 m
- Denbora (g.g. b.): 3 ordu 30'

MIDE

Bideek eskatzen duten maila teknikoa eta fisikoa neurtzen duen metodoa da, 1etik 5era, txikienetik handienara doazen zailtasun balioekin.

- 1 Ingurunea
- 2 Desplazamendua
- 2 Ibilbidea
- 3 Esfortzua

Gomendioak:

- Honako noranzko hau gomendatzen da: Elexalde-Nabarniz-Merika -Illuntzar-Airo-Ikazurieta-Intxaurraga-Uribarri-Elexalde.

- Beste abiapuntu posible batzuk: Ikazurieta eta Uribarri.

- Gogoan hartu mendi-ibilbidea dela, eta bertan tenperaturak muturrekoak direla. Aukeratu arropa eta oinetako egokiak, eta eraman behar duzun ura.

Ibilbidearen profila:



Munitiz

Gogoratu

- Ondo prestatu txangoa
- Utzi baketan inguruko animaliak
- Gogoratu prismatikoak hartzea
- Ez hartu lorerik
- Utzi atatak aurkitu dituzun moduan
- Ez bola zaborrik

Ibilbideak Airo eremurantz egiten du aurrera, eta baserri itzel baten hondarrak aurkituko ditugu bertan, harizti txiki eta eder baten ondoan.

Pista zabal batean barrena Kurtziaganako bidegurutzera hurbilduko gara, Intxaurraga eta Ikazurieta auzoetara jaisten zen galtzada zahararen abiapuntua. Bertako baserrietan altxor etnografiko ugari gorde dira.

Baserri, baratze, larre eta zuhaitzi txikien artean ibilaldi ederra eginez Uribarri auzora iritsiko gara, eta bertan, San Migel ermitaren ondotik pasatuz, ibilaldia Elexaldera igotzen da berriz.



Informazioa

Turismo bulegoak:

- Gernika-Lumo..... 94 625 58 92
- Bermeo 94 617 91 54
- Mundaka 94 617 72 01

Garraio publikoak:

- Bizkaibus 946 125 555
- Euskotren 902 54 32 10



Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatua
Madrariaga dorretxea
94 403 23 60



Arnaga eta Zabalintxaurreta baserria



Larre menditarrak

airoko pagadia

Airo baserriaren ondoan pago motzen baso txiki bat gorde da, ondare etnobotanikoaren altxor preziatuenetako bat. Zuraren aprobetxamenduari estu lotutako baso horiek azalera handia izan zuten garai batean, baina bakanak dira gaur egun.



goi-bailaretan

Baserriari lotutako elementu ugari gorde ditu Nabarnizek. Garaiak, egurtegiak, lastategiak, ferratzeko egiturak, karobiak, ikuztegiak, iturriak, bide enkatatuak eta ermitak aurkituko dituzu bidean, goi-harrietako baserrien egunerokotasunaren adierazgarri bikainak.



(112) SOS DEIAK


Homologatutako ibilbideak. Sinbologia.

PR®

- Zidorraren jarraipena
- Norabide aldaketa
- Okerreko norabidea

— Mendiko ibilbide laburra (PR)

□ Interesguneetara desbiderapenak



arrolako oppiduma

Gure historia ezagutzeko funtsezko aztarnategia da Arrola. Burdin Aroko gotorlekua da, eta handitasunagatik, zabalatasunagatik eta kontserbazio-mailagatik nabarmentzen da, Ekialdeko Kantauriko ikusgarrietako bat izanik. K.a. IV. mendetik K.o. I. mendera bitarte kastro handi edo herrixka gotortu hau okupatuta egon zen.



Ikurrak

	Abiapuntua		Egurtegi- lastategia
	Aparkalekua		Garaia
	Eliza		Ferratzeko egitura
	Ermita		Latsarria
	Gailurra		Galtzada
	Ikuspegi panoramiko		Koba
	Interes naturala		Garraio publikoa
	Iturria		Taberna- jatetxea